



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko ekainaren 30ean

51 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Toki Administrazioaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua (3. or.).
- Foru Lege proiektua, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuen berregituratzea dela-eta, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako “Labiaga” ikastolako egoera konpon dezan, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztua (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaierako titulua duten erdi mailako titulu-dun espainiarrei buruz neurriak har ditzan, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua (9. or.).
- Mexikoko Chiapasko egoerari buruzko adierazpen politikoa. Bozeramaileen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruzko galdera, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak egina (11. or.).
- Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak egina (12. or.).
- Castejónen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina (13. or.).

- 1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (14. or.).
- Ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina (14. or.).
- Lantero Taldeak Gráficas Estella, SA enpresa erosteari buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (15. or.).
- Hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezaún Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyoiz Lezaún Foru Parlamentari jaunak egina (16. or.).
- Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruzko galdera, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak egina (17. or.).
- Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (18. or.).
- Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (19. or.).
- Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (20. or.).
- Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (21. or.).
- Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (22. or.).
- Erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurriei buruzko galdera, José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak egina (23. or.).
- FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (24. or.).
- FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina (25. or.).

G SAILA:**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa. Izendapena (26. or.).

H SAILA:**Bestelako Testu Arau Emaileak:**

- Nafarroako nekazari eta abeltzaintzako Eskualdeko Ardura Plana (27. or.).
- Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren arloko itunen sistema aztertzeko Batzorde Bereziaren osaketa, antolamendua eta jarduerari buruzko arauak (27. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Toki Administrazioaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko ekainaren 15ean hartutako Erabakiaren bidez, Toki Administrazioaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Toki Administrazioaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua Parlamentuan ohiko jardunbidez bideratzea, Erregelamenduko 149. eta 150. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontutan hartuta.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Toki Administrazioari Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko irailaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Toki Administrazioaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 2/1990 Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen duenez, 46. artikuluko 3. idazatian aipatzen den elkarte osakeraren ondoriozko idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak behin betikoz berregituratu arte, idazkari edo kontuhartzaile izateko gaitasuna lortzeko eta hartan aurreikusten diren lehiaketa orokorren bidez lanpostu horiek betetzeko deialdiei buruz Zazpigarren Tituluko II. Kapituluko 1. eta 2. sailetan xedaturikoaren aplikazioa bertan behera utzi da.

Halaber, xedatzen du, bitartean toki entitateen hutsik gelditzen diren idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak kargurako berezko titulua duten langileak aldi baterako kontratatuz beteko direla.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeak 1990eko urriaren 1ean hartu zuen indarra eta, Lege horretako 46. artikuluko 3. idazatian aurreikusirikoa garatzea xede duten ekimen batzuk izan badira ere, orain arte ez da arazko aurrerapenik gertatu. Horregatik, bertan behera uzteko aurreikusirikoa neurriaren iragankortasuna dela eta, toki entitate askotan, aipaturiko lanpostuak behin betikoz betetzeko oztupoak sortzen ari dira.

Baliabideak arrazoiz banatu eta haien eskualdeei dagokienez zuzentasunez aplikatu nahiak eragozpen batekin egin du topo, hori dena legez gauzatzeko zailtasunarekin, hain zuzen ere, eta, Foru Komunitateko toki entitate askotan, langileen iraunkortasunik eza eta bitartekotasuna izan ditu ondorio. Denboraren denboraz areagotzen ari da egoera hori, gaur egun jendetzari eta baliabide kopuruari dagokienez garrantzitsuak diren udalerriak ere ukitzen baititu. Izan ere, horiek, are gehiago, beharbada, nahiko egitura iraunkorren beharra daukate.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea ia zortzi urtez indarrean egon ondoren, 46. artikuluko 3. idaztatia garatzeko helburua berehala lortzerik ez bada ere, gaur egungo egoera arin dezaketen neurriak onestea beharrezkoa da, konponbidea udal erabakien esparruaz gaindikoa baita. Horrekin ez da batere kili-kolo utziko Foru Komunitateko udal maparen etorkizuneko garapena.

Horrela, gero elkartzekoak diren toki entitateak jendetzarik gutxien eta gaitasun ekonomikorik txikiena dutenak direnez, ezin saihestuzkoa eta guztiz eraginkorra da hirugarren xedapen iragankorrean aipatzen den bertan behera uztea hein batean baliogabetzea idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak bete ahal izateko, jendetzagatik, sor litezkeen elkarreetatik aparte, toki entitateek lanpostu horiei atxiki behar dietela bermatzea ahalbidetzen bada.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 baldintzak hertsiki errespetatuz, Nafarroako biziguneen banaketaren arabera, gorabehera horiek ager litezke, 2.000 bizilagunetik goitiko udaletan, idazkari lanposturako, eta, 3.000 bizilagunetik goitiko udaletan, eta, kasuan kasuko plantila organikoan horrela aurreikusirik badaukate, 2.000tik 2.999 bizilagun bitartekoetan, kontuhartzaile lanposturako.

2.000tik 2.999 bizilagun bitarteko udaletako kontuhartzaile lanpostuak udal batzuen jarduketagatik sartu dira, gaurko arautegiarekin erabat bat datorrena. Izan ere, udal horiek beharrezkotzat jo dute lanpostu hori beren esparruan. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen ondoriozko Kontabilitate Publikorako Plan Orokorren ezarpenaren eraginagatik ere sartu dira, horrek bizilagun horiek dituzten udalak ere ukitzen baititu.

Hortaz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko hirugarren xedapen gehigarriaren ondoriozko bertan behera uzteak lehen aipaturiko idazkari eta kontuhartzaile lanpostuak betetzeko prozesua uki lezake. Zazpigarren Tituluko II. Kapituluko 1. eta 2. Sailetan xedatu bezala egin liteke, prozedurazko salbuespenen bat salbuespen, lanpostu mota bakoitzarendako merezimendu-lehiaketarako deialdi bakarra eta oposizio-lehiaketarako deialdi bakarra egin nahi baitira.

Azken helburua bizilagun gehien dituzten eta geroa nahitaez elkarteei buruzko arauzko garapenari loturik ez daukaten toki entitateen premia larriak betetzea besterik ez da, baita bitarteko idazkari eta kontuhartzaile askoren lan iraunkortasunik-eza bukatzea ere. Izan ere, egoera horrek

ez die batere onik egiten toki entitateei, ez eta, noski, ukituriko pertsoneri ere.

Azkenik, interesagarria da adieraztea jarduketa hau lehen urratsa dela udal zerbitzuen elkarreentarako plan zuzentzailea prestatu ahal izateko, gure Foru Komunitateko toki entitateen askotasunak sorturiko zailtasunak, gero eta gehiago direnak, eta baliabide teknikoak eta langileen ahal baino gutxiago erabiltzea konpontzearren.

1. artikulua. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko hirugarren xedapen iragankorraren ondoriozko bertan behera uztea indarrrik gabe uzten da, 2.000 bizilagunetik goitiko udaletan idazkari lanpostuak bete ahal izateko eta 3.000 bizilagunetik goitiko udaletan eta, kasuan kasuko plantila organikoan aurreikusirik badaukate, 2.000tik 2.999 bizilagun bitarteko udaletan, kontuhartzaile lanpostuak bete ahal izateko.

Lanpostu horiek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeko Zazpigarren Tituluko II. Kapituluko 1. eta 2. Sailetan xedatu bezala beteko dira, hurrengo kapituluan aurreikusirik berezitasunak berezitasun, eta lanpostu mota bakoitzarendako merezimendu-lehiaketarako deialdi bakarra eta oposizio-lehiaketarako deialdi bakarra egin nahi baitira.

2. artikulua. Lehen ezarririko betebeharrak dauzkaten Nafarroako toki entitateek, bertako idazkari edo kontuhartzaile lanpostuak funtzionario gaituek betetzen ez badituzte, gehienez ere Foru Lege honek indarra hartu eta bi hilabeteko epearen barrenean, inguruabar horren jakinarazpena igorriko dute Foru Komunitateko Administrazioari, udalbatzak ezarririko merezimendu berezien baremoa onesten duen osoko bilkurako erabakiaren ziurtagiriarekin batera, hala bada.

Jakinarazpen hori hartzen ez bada, Toki Administrazioiko Departamentuak lanpostu hutsak sartuko ditu, ofizioz, eta ulertuko du toki entitate interesatuek ez dutela komenigarritzat jotzen merezimendu bereziesn baremoa ezartzea.

Azken xedapenak

Lehena. 2.000tik 2.999 bizilagun bitarte dituzten udalek, plantila organikoan kontuhartzaile lanposturik ez badaukate, lanpostu hori arau honetako 2. artikuluan aurreikusirik epea bukatu baino lehen sartzeko egoki diren jarduketak egiten ahalgo dituzte, hura Foru Lege honetako aurreikuspenekin bat betetzeko.

Bigarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurri buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 1998ko ekainaren 22an hartutako Erabakiaren bidez, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurri buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 125.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, Bozeramaileen Batzarra entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehen.- Hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurri buruzko Foru Lege proiektua Parlamentuan ohiko jardunbidez bideratzea.

Bigarrena.- Proiektu hartaz Irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

Hirugarrena.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **hamabost laneguneko epea irekiko da, 1998ko irailaren 18ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.”

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proiektua, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurri buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Lurzoruaren araubideari eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legeak indarra hartzearen ondorioz, aldatu egin da lurzoruaren jabetzaren araubide juridikoaren konfigurazioa, beti ere lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko harako 10/94 Foru Legean ageri zen hartaz ari garela; izan ere, haren oinarria 1992ko Testu Bategina baitzen, eta horretan ezarritako manu ia guztiak indarririk gabe gelditu dira 6/98 Legeko Lehenbiziko Xedapen Indargabetzailearen bidez.

Konfigurazio berri honek berehalako eragina du, besteak beste, urbanizazio prozesuak ukitutako lurzoruen jabeen eskubide eta betebeharrei buruzko araubidearen gainean.

Hor ditugu, adibide gisa, 6/98 Legeko 14.2 c) eta 18.4 artikulua, hurrenez hurren, hiri-lurzoru eta lurzoru urbanizagarrien jabeen betebeharrei buruzkoak, zeinetan ezartzen baita Administrazio jarduleari nahitaez eta dohainik laga behar zaiola eremuaren probetxamenduaren % 10aren heineko lurzoru puska, bai eta adierazten ere ehuneko hori dela gehienez eska daitekeena eta legedi autonomikoak murriz ditzakeela hala kopuru hori, nola Administrazioaren partaidetza lurzoruari dagozkion urbanizazio kargetan.

Arestiko manu horiek, 6/98 Legeko Azken Xedapenaren arabera, eskubideen erabilerarako oinarriko baldintzak dira, Konstituzioko 149. artikuluko 1.1go idaztiari jarraikiz.

Aipatutako horrek berehalako eragina du Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legeko 13. artikulua edukian, Estatuko legedian finkatutako 100eko 10etik goitiko lagapena ezartzen den kasuetan. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, probetxamenduaren urbanizazio kargetan Administrazioaren esku gelditzen den partaidetzari edo lagapenaren gehieneko kopuruaren murrizketari dagokienez, bi gai horietarako beharrezkoa baita Foru Komunitateko legegintza organoak berariaz hartzea legegintzako erabakiren bat.

Hirigintza arloan Foru Komunitateak duen arau-esparrua, osorik hartuta, berriz aztertzea komeni edo beharrezkoa ote den ukatu gabe, orain beharrezkoa da, argitasun eta segurtasun juridikoarengatik, berehala aldatzea Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 10/94 Foru Legeko 13. artikulua edukia, Estatuko legediari egokitzeko, alde batetik, eta, beste aldetik, abuztuaren 10eko Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 44.1 artikulua arabera Foru Komunitateak lurraldearen antolamendu eta hirigintza arloan dituen eskumen eksklusiboak erabiliz, arautzeko, kasu bakoitzean, Administrazio jardulearen aldeko probetxamendu-lagapenaren portzentaiak, eta murrizteko portzentaia horiei dagozkien urbanizazio kargak, era horretan orekatu ahal izateko udalen lurzoru-ondarearen gainean Estatuko legedi berriak eragindako ondorio negatiboak.

Horiek horrela izanik, Foru Lege honen helburua da Estatuko legedian ezarritako lagapen portzentaiaren gehieneko kopurua egokitzea, hala hiri-lurzoruen kasuan nola urbanizagarrienean, eta murriztea probetxamenduen urbanizazio kargetan Administrazio jarduleari dagokion partaide-tza, aipatu laga behar horretatik datorkiona, Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeko 13. artikulua aldatuz.

Artikulu bakarra. Lurraldearen antolamendu eta hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legeko 13. artikulua, hemendik aurrera, honako testu hau izanen du:

“13. artikulua. Eskura daitekeen hirigintza-probetxamendua.

1. 2000 biztanletik gorako udaletako hiri-lurzoruan eta Iruñeko konurbazioko udaletan, horretarako arau bidez berariaz zehazten den mugapenaren arabera, eskura daitekeen probetxamendua honako hau izanen da:

a) Exekuzio unitateetan sartutako lurretan: Exekuzio Unitateari edo, bestela, Banaketa-areari dagokion probetxamenduaren ehuneko 90.

b) Exekuzio unitateetan sartu gabeko lurretan, zutik dagoen eraikinaren ordezkapen hutsa ez denean, eta Planak probetxamenduaren gehikuntza baldin badakar: planeamenduak erakarritako probetxamenduaren ehuneko 90.

Horrela gertatuz gero, gainontzeko probetxamenduaren ehuneko 10, Administrazioari dagokiona, diruz ordainduko da, hirigintza balioaren arabera.

c) Exekuzio unitateetan sartu gabeko lurretan, zutik dagoen eraikinaren ordezkapena denean, probetxamenduaren gehikuntzarik gabe: planeamenduak uzten duen probetxamenduaren ehuneko 100, jabeak, bere kontura, planeamendu horrek ezartzen dizkion urbanizazio kargak bere gain hartzeko betebeharra galarazi gabe.

d) Gune historikoen barruan diren lurretan: planeamenduak uzten duen probetxamenduaren ehuneko 100.

2. 2000 biztanletik beherako udaletako hiri-lurzoruan, eskura daitekeen probetxamendua honako hau izanen da:

a) Exekuzio unitateetan sartutako lurretan: Udal Planak ezartzen duen portzentaia, exekuzio unitate guztientzat berbera eta, beti ere, exekuzio unitate bakoitzean ateratzen den batez besteko probetxamenduaren ehuneko 90 baino gutxiago izanen ez dena.

b) Exekuzio unitateetan sartu gabeko lurretan: planeamenduak uzten duen probetxamenduaren ehuneko 100, jabeak, bere kontura, planeamendu horrek ezartzen dizkion urbanizazio kargak bere gain hartzeko betebeharra galarazi gabe.

3. Lurzoru urbanizagarrian, eskura daitekeen probetxamendua honakoa izanen da: planeamenduak zehazten duen probetxamenduaren ehuneko 90.

4. Hirigintza-probetxamenduak berekin dakartzan urbanizazio kargetan, Administrazio jarduleari dagokion zatia, aurreko idazatietan ezarritako laga behararen ondorioz, 153.1. artikuluko a) eta c) idazatietan aipatzen diren urbanizatzeko gastuen ehuneko 50 murriztuko da.”

Xedapen iragankorra

Urbanizazio kargetarako Foru Lege honen ondorioz ezartzen den murrizketa, Lege honek indarra hartzen duen egunean oraindik ere behin betiko onespina hartu ez duten exekuzioko prozedurei aplikatuko zaie.

Xedapen indargabetzailea

Indarririk gabe gelditzen dira Foru Lege honetan ezarritakoaren aurka jotzen duten edo bateraeziki diren legezko nahiz erregelamenduzko manu guztiak.

E saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuen berregituratzea dela-eta

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hainbat neurri har dezan Adimen Osasunari atxikitako zenbait zerbitzuen berregituratzea dela-eta”. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztatibada eta bozketa Osasun Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariarik emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko

Epe laburrean, lehentasuna behar duen arloa dugu adimen osasuna, non gobernuek, erakunde publikoek eta gizarteak, oro har, irtenbideak bilatzeko ardura hartu behar duten, luzamendutan ibili gabe.

Hamasei mila pertsona inguru dira Nafarroan gaitz edo eritasun psikikoak jotakoak. Horietatik herena kronikoak dira. Biltzar honek bere jarrera politikoa azaltzea eskatzen du egoerak.

Gasteen kronifikazioa kezagarria da eta agerian uzten du akats endemikoak, lan eta okupazioaren arloan, aisialdiko baliabideetan, etxeko arre-

tan eta senideendako laguntzan, egoitza-baliabideetako gain. Tarteko baliabideen eta talde laguntzako garapenik ezak kolapso egoera ekarri dio azken urteotan adimen osasuneko sareari.

Bai Nafarroako Gobernuko Osasun Kontseilariak eta Gizarte Ongizatekoak egindako agerraldietan, bai gure taldeak gaitz edo eritasun psikikoak jotakoendako gizarte-baliabiderik ezaz egindako galderen erantzunetan, bai ANASAPSek adimen osasunari buruz antolatu dituen jardunaldietan, ahobatez eta jendaurrean onartu da, hain agerikoa denez inork ez baitu ukatzen, kaltetuen eta senideen egoeraren tamalgarria.

Joan den maiatzean agertu ziren egunkarietan ospitale psikiatrikoa nagusi eroendako zentro bilatzeari buruzko berri zabalak, bata bestearen ondoren. Zentro psikogeriatrako horretan jarri nahi dute errehabilitazio-klinika eta adin finkatu gabeko adimen-erriendako egoitza. Aldi berean, baliabide guztiak kudeatzeko fundazio publikoa sortuko zela iragarri zuten, departamentuen arteko koordinazioa zaila omen zelako.

Egunkarietan baino agertu ez ziren egitura-aldaketa sakonen berririk gabe geundenez, erabat, gure Taldeak Osasun Kontseilaria ager zedila eskatu zuen, aipatu aldaketaren edukia eta norainokoa azal zitzan.

Osasun Kontseilariak ez zuen ezagutzen genuenaz bestelako informaziorik eman eta ez zuen inongo dokumentaziorik ekarri gizarteko talde handi bati eragingo dioten neurri arauemaile eta juridikoei buruz. Talde horren gainbehera, bata bestearen ondoren heldu diren gobernuen utzikieriaz eta Osasun eta Gizarte Ongizate departamentuak elkarrekin ulertu eta adostu ezinaz etorri da.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu da:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du hurrengoak geldiaraz ditzan: Adimen Osasunari atxikitako zerbitzuak berregituratu, Ospitale Psikiatrikoa eraldatu eta "Fundación Navarra para la Rehabilitación e Integración Social del enfermo mental" izenekoa sortzeko tresna arauemaile eta juridikoak.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du bi hilabeteko epean bidal dezan plan orokor bat, adimeneko gaitzak edo eritasunak jotakoentzako tratamendua, errehabilitazioa eta gizarteratzea aintzat hartuko dituen. Beharrianak, helburuak, bitartekoak, tresnak eta betetzeko epeak eduki beharko ditu planak.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako "Labiaga" ikastolako egoera konpon dezan

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTARI TALDEAK ETA BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK AURKEZTUA

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak hurrengo mozioa aurkeztu dute: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Berako "Labiaga" ikastolako egoera konpon dezan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentarietiek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak eta Eusko Alkartasunak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluekin eta ondokoekin bat, hurrengo mozioa aurkeztu diote Biltzarreko Mahaiari:

Nafarroako Berako Labiaga Ikastolak DBH ematen die ehun ikasle ingururi, egoera alegalean. Nafarroako Ikastolen Federazioak eta aipatu ikastetxeko irakasle eta gurasoek behin eta berriz eskatu diote Nafarroako Gobernuari bukaera eman diezaiola egoera eragabe horri eta ikastetxea Nafarroako gizarte-ekimeneko sarean sar dadila, pribilegiorik gabe, sare horretako beste edozeinek dituen betebeharrak eta eskubide berekin.

Ikastetxeak 1994an egokitu zituen bere instalazioak LOGSEren hezkuntza-erreformari atxikitzeko eta gaur egun ez da oztopo gaindiezinik aipatu ikastetxeak baimena eta ituna izan ditzan DBHko lau ikasturteetan.

Horiek horrela, hurrengo erabaki-proposamena aurkeztu zaio Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatu du berehala ekin diezaiola Berako Labiaga Ikastolaren eragabeko egoera konpontzeari, eta aipatu ikastetxeak ematen dituen DBHko lau ikasturteak baimendu eta ituntzeari, gero.

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an

Foru Parlamentariak: Juan Cruz Alli Aranguren eta Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaierako titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrei buruz neurriak har ditzan

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak hurrengo mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da amaierako titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrei buruz neurriak har ditzan". Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentari Taldeek eta Foru Parlamentariak emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

MOZIOAREN EDUKIA

Parlamentuko Talde Sozialistak, bere bozera-mailearen bitartez eta Biltzarreko Erregelamenduak aurreikusitakoaren babesean, hurrengo mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Berrikitan ezagutu al izan du iritzi publikoak amaierako titulua duten erdi mailako tituludun espainiarrek jasaten duten bereizkeria, Europako funtzionaritzara iristerakoan.

Badira urte batzuk arazoa planteatu dela, eta Espainiako funtzio publikora eta Europako Batasuneko funtzio publikora iristeko titulazioen taldekako banaketa bat ez etortzetik omen dator.

Estatuko Gobernuak Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzeko lege aurreproiektua onetsi duenez, bidegabeko egoera horren inguruko eztabaida berpiztu egin da.

Erabaki proposamena:

1.- Nafarroako Parlamentuak bere gogoia adierazi du amaierako titulazioa duten lehen zikloko unibertsitate tituludun espainiarrak Europako funtzio publikora iritsi ahal izan daitezen, Europako Batasuneko gainerako estatuetako lehen zikloko unibertsitate tituludunen baldintza berberetan.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiau du Estatuko Gobernuari eta Diputatuen Kongresuari hauxe helaraz diezaien: Funtzio Publikoaren Oinarrizko Estatutua arautzeko lege aurreproiektua izapidatzerakoan, irtenbidea aztertu beharra dagoela amaierako titulazioa duten lehen zikloko unibertsitate tituludun espainiarrek Europako funtzio publikora iristeko garaian jasaten duten bereizkeriarentzako. Ikasleek eta unibertsitateek egin ditzaten proposamenak baloratuko dira horretarako.

Iruñean, 1998ko ekainaren 19an

Bozera-mailea: Carlos Cristóbal García

Mexikoko Chiapasko egoerari buruzko adierazpen politikoa

BOZERAMAILEEN BATZARRAK ONETSIA

1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarrak hurrengo adierazpen politikoa onetsi zuen:

1go.- Nafarroako Parlamentuak berriro dio indarkeria erabiltzeak inolaz ere ez duela laguntzen gizarte demokratiko eta zibilizatu orotan sor eta defenda daitezkeen ezberdintasun ideologikoak edota politikoak konpontzen.

Ildo horretatik, Nafarroako Parlamentua ez dator bat indarkeria erabiltzearekin Mexikoko Chiapas estatuan sor daitezkeen egoerari konponbidea emateko.

2gn. Zerikusirik dutenek izenpetu dituzten hitzarmenen ildotik jarraitu beharra adierazten du Nafarroako Parlamentuak, San Andreskoak, kasu.

Izan ere, guztiek hitzartu eta izenpetu dutenari zor zaion errespetutik ezarri ahalko dira elkar ulertzeko bideak, eskualdearen normalizaziorantz jotzeko.

3gn. Nafarroako Parlamentuak, Mexikoko barne arazoetan sartzeko inongo asmorik gabe, Espainarekin aspaldiko anaitasun-harremanak baititu, goraipatu egiten du nazioarteko behatzai-leak egiten ari diren giza eskubideen aldeko lan gizartekoia, langintza horretan dihardutelako bakarrik goraipatu ere, behatzaileetako batzuk Nafarroako Foru Komunitateko herritarrak baitira, gainera.

Iruñean, 1988ko ekainaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

F saila:
GALDERAK

Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoei buruzko galdera

INMACULADA MATIAS ANGULO FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak Paz de Ziganda ikastolarekin eraikin berriak egiteko hartutako konpromisoiei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Inmaculada Matías Angulok, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea izapidatu zenean, Parlamentuko Talde Sozialistak 256 zenbakiko emendakina aurkeztu eta proposatu zuen aurrekontu-lerroa sortzea, 300.000.000 pezetarekin, hurrengo izenarekin: Gizarte ekimeneko ikastetxetan inbertitzeko programa. Hauxe zioten horren arrazoietan: Handi daitekeen kontusaila berreskuratu nahi da, Nafarroako

hezkuntza-sistemaren benetako beharriari arreta egiteko, Paz de Ziganda ikastola eraikitzekeo laguntzak, konparazio, emendakina gisa ere proposatu den xedapen gehigarria aplikatuz Batzordeak onetsi egin zuen aipatu emendakina (Gobernuari eusten dion UPN taldea, besteak beste, alde agertu zen), eta aipatu Legean sartu, 12751-9 lerro-zenbakiarekin, aipatu kopuruarekin.

Dirudienez, Paz de Ziganda ikastolak ez daki oraindik ezta Gobernuak hitzartu eta Parlamentuak onetsitako diru-kopurua noiz jaso dezakeen ere.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi dut:

1.- Egia al da Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuela duela urte batzuk gizarte ekimeneko Paz de Ziganda Ikastolako titularrekin, aipatu ikastetxeko eraikin berriak eraikitzekeo laguntza ekonomikoa emateko? Baiezkoan, zer kopuru hitzartu zen?

2.- Nafarroako Gobernuak zerbait eman al dio Paz de Ziganda ikastolari 12751-9 lerrotik, aipatu kontusailak dioen kontzeptua dela-eta? Baiezkoan, zenbat eman dio eta zenbat dago eman gabe? Ezezkoan, noiz emanen dio eta zenbat?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Inmaculada Matías Angulo

Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Ziraukiko lurzati-kontzentrazioko obren garapenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Ziraukiko zinegotzi eta auzoak kezkatuak daude herri horretan egiten ari diren lurzati-kontzentrazioaren obren garapena dela-eta. Bideetan ubiderik ez dagoela, Igusteko erromatar galtzadaren konponbiderik eza, Dorrondoako Erdi Aroko zubiaren higadura, ibaia zeharkatzeko arekak, eta abar.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Bidali al zaio Ziraukiko Udalari lurzati-kontzentrazioaren proiektuari buruzko dokumentazio guztia?

2.- Zer irtenbide proposatzen du Nekazaritza Departamentuak Ziraukiko Udalak agertu dituen hurrengo arazoetarako: bideetan ubiderik ez dagoela, Igusteko erromatar galtzadaren konponbidea, Dorrondoako Erdi Aroko zubiaren higadura, ibaia zeharkatzeko arekak?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruzko galdera

JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak bidezidorren sare nagusiaren egoera eta mantenimenduari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Foru Komunitateak 1987an zabaldu zuen bidezidorren sare nagusia, GR 11, GR 12 eta GR 13 martxan jartzearekin batera. Ordurik hona, paseo naturala dugu Nafarroak eskaintzen duen erakargarrietako bat, turismoaren aldetik.

1995etik aitzina, Nafarroako Mendi Federazioak salatu egin du bidezidorrak gutxi zaintzen direla. Ezin da ukatu bidezidorrak azkar hondatzen direla, inguruan duten landarediak horretarako bidea ematen duelako. Bidezidorrei bere horretan eusteko jarduera behar da, GR 11n batez ere, gutxien erabiltzen dena delako, behar bada, eta, ondorioz, hondatuena.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du GR 11 (Pirinioko bidezidorra) delakoaren hondamenaren berri? Zeintzuk dira zatirik hondatuak?

2.- Zer neurri hartu behar du Nafarroako Gobernuak GR 11 ibilbideko bidezidorrak bereonatu eta seinaleen aldetik ongi mantentzeko?

3.- Zenbat diru aurreikusten da horiek zaindu eta mantentzeko?

4.- Gaur egun, ba al da ildo horretatik jarduteko aurreikuspenik? hala bada, zeintzuk?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Juan Cruz Alli Aranguren

Castejónen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Castejónen bi zentral termiko eraikitzeko proiektuari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta ondokoetan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion.

Greenpeacek prentsa ohar batez salatu ditu Castejónen gas naturala erregai erabilita bi zentral termiko eraikitzeko zenbait konpainia elektriko egindako proiektuak.

Proiektuetako bat Iberdrolarena da eta bestea Hidrocantábrico konpainiarena, eta Greenpeacek esandakoaren arabera, 800 megavatioko indarra izanen dute eta urtean 2,7 milioi tona karbono dioxido aiereratuko dituzte. Greenpeacek erantsi du proiektu horiek goitik beherako kontraesana direla Nafarroarentzat, izan ere Parlamentuak onetsiriko planen arabera 2010. urtean kontsumituko den energia guztia iturri berriztagarrietatik atera behar delako.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Zer informazio du Nafarroako Gobernuak proiektu horiei buruz?

2. Zenbateko azalera beteko dute instalazio horietako bakoitzak?

3. Beteko duten azalera publikoa ala pribatua izanen da, ureztalur ala lehorreko lur?

4. Instalazio horietako bakoitzean zenbat lanpostu sortzea aurreikusi da?

5. Zenbateko zergak bilduko ditu Castejóngo Udalak Gutxi gora-behera?

6. Zer mota eta kopurutako hondakin solido eta gaseoso isurtzea aurreikusi da?

7. Aintzat hartzen badira zein diren maizen izaten diren haizeak, eraginen al dute Tutera aldean edo eskualde horretako bestelako herrietan?

8. Zer erregai mota erabiliko da instalazioetako bakoitzean?

9. Ikusita zein den erregaiaren kontsumoa eta erregai horren egungo egoera, mantenduko al du daukan garraio gaitasuna garraio instalazioak handitu beharrik gabe?

10. Aztertu al da proiektu horien eragina eta Nafarroak onetsiriko kontsumo energetikoko irizpideekin bat ote datozen?

11. Instalazio horiek sorturiko zenbat energia kontsumituko da Nafarroan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak 1998.a Giza Eskubideen Urte deklaratzeari buruz onetsi zen erabakiaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marcok, Askotariko Parlamentari Taldeari atxikitako "Nueva Izquierda"ren Foru Parlamentariak, Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak aho batez onetsi zuen mozio bat, joan den martxoaren 10ean. Mozio horretan, Giza Eskubideen urte deklaratu zuten 1998.a eta Nafarroako Gobernuari agindu zitzaion argitalpen bate-

an bildu zitzala Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta funtsezko eskubideei buruzko beste lege-testu batzuk (onetsitako mozioaren bigarren puntua).

Era berean, Nafarroako Gobernuari agindu zitzaion azterketa egin zezala Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeari buruz.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1. Ea egin duen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta funtsezko eskubideei buruzko beste lege-testu batzuk biltzen dituen argitalpena. Hala bada, zenbat ale eta zer testu argitaratu diren.

2. Aurrekoaren erantzuna ezezkoa bada, noiz argitaratzeko asmoa duten eta zenbat ale emango diren argitara.

3. Noiz aurreikusi duen Nafarroako Gobernuak bukatuko dela Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren printzipioak Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzeari buruzko azterlana.

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

Ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruzko galdera

BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARI ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak ikastoletako azpiegitura-lanak egitea xede duen 12751-9 aurrekontu lerroaren betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Begoña Errazti Esnalek, Eusko Alkartasunako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1998ko Aurrekontuetan 300 milioiko kontusaila, handitu daitekeena, onetsi zen (12751-9 lerro zenbakia) ikastoletan azpiegitura lanak egiteko.

Ekitaldiaren erdia pasa da eta hauetxek jakin nahi ditugu:

- Kontusailaren betetze egoera.
- Betetzea atzeratzearen arrazoiak.
- Betetzearen aurreikustea: deialdia, egun eta guzti, baldintzak.

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Lantero Taldeak Gráficas Estella, SA enpresa erosteari buruzko galdera**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Lantero Taldeak Gráficas Estella, SA enpresa erosteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaioten:

Gráficas Estella SA (GESA) enpresak oraintsu iragarri du enpresa berria sortuko duela Nafarroan, 1000 milioi pezeta inguruko inbertsioarekin eta 25 lanpostu berrirekin, gutxi gorabehera.

Nafarroako Gobernuak 1995ean saldu zion GESA delakoa LANTERO taldeari, krisialdi eta bereoneratze prozesu baten ondoren. Ehundaka milioi pezeta fondo publiko jarri zen horretan eta 200dik gora lanpostu galdu, 500 langile izatetik 270 izatera, gutxi gorabehera, igaro baitzen plantila. Prozesu haren ondorioz, proiektu saneatua eta

finantza- edo lan-zamarik gabea erosi zion Lantero taldeak Nafarroako Gobernuari.

Krisiaren garaian Nafarroako botere publikoek GESArekin hartutako konpromiso hori gorabehera, ordea, aipatu enpresaren egungo zuzendaritzak mehatxua egin du inbertsio eta proiektu berriak Nafarroatik at eramateko, baldin eta langileek ez bazioten amore ematen enpresa berri bat sortzeari, GESAn zituztenak baino lan-baldintzak apalagoekin.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da Nafarroako Gobernutik, Gráficas Estella SAren aurreko jabea den aldetik:

1.- Nafarroako Gobernuak eta LANTERO taldeak izenpeturiko Gráficas Estella SAren salerosketan, konpromisorik jarri al zitzaien jabe berriei GESAren instalazioetan inbertsioak egin edota enplegua sortzeari buruz?

2.- Hala izan bazen, zeintzuk izan ziren konpromisook eta noraino bete dira?

3.- Nola baloratzen du Nafarroako Gobernuak GESAk hartu duen jarrera, alegia, inbertsio berriak Nafarroatik kanpo egitea baldintza batzuk betetzen ez baziren? Kontuan har bedi Foru Komunitateak egin zuen finantza-ahalegina enpresaren jarduerari Nafarroan eusteko.

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak hainbat lokal eta establezimendutan tatuajeak egiteari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Kalean ikus daiteke tatuajeak eramateko joera hedatzen ari dela, gazteengan batez ere.

Era berean, badirudi horretarako propio jarri diren establezimenduetan egiten direla tatuajeok, Tejeria kalean, Xabier Jaitsieran, eta abar.

Kontuan hartzen bada tatuajeak arriskua ekar diezaiokeela osasunari, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer arautegi ezarri behar zaie inori tatuajeak egiten dizkioten lokal eta pertsoneri?

2.- Osasuneko Foru Administrazioak ba al du tatuajeak egiten dituzten lokal eta pertsonen zerrendarik?

3.- Erabilitako materialaren erosketaz, hori botatzea eta berriztatzeaz, eta abarrez, ba al dago kontrolik?

4.- Tatuajeak egiten dituztenen titulazioaren berririk ba al da, eta hala bada, kolegiaturik dauden edota erantzukizun-asegururik duten?

5.- Era berean, bezero bakoitzari dagokion fitxa bete eta artxibatzea exijitzen al da, bezeroaren aurrekariekin, aurkako erreakzioekin, eginda-koaren nolakotasunekin eta adin txikikoentzako baimenarekin?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruzko galdera

MIGUEL ANGEL LARRAYOZ LEZAUN FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Miguel Angel Larrayoz Lezaun Foru Parlamentari jaunak Radio Riberak irratsaioak emateko erabiltzen duen lokalaren lagapena ez luzatzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Miguel Angel Larrayoz Lezaunek, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Argitaratu dutenaren arabera, Nafarroako Gobernuak erabaki omen du bere jabetzapeko lokal baten lagapena ez luzatzea Fontellasko Udalari. Radio Ribera izenekoak ematen zituen

bere irratsaioak handik, kazetari baten zuzendaritzapean.

Erabaki hori egiten ari ziren jarduketa mugatzea dela uler daiteke.

Horiek horrela, hauxe jakin nahi da:

1.- Zeintzuk izan dira aipatu lokala erabiltzeko ahalmena kentzeko arrazoiak?

2.- Ba al zekiten Radio Riberak bere irratsaioak ematen zituela lokal horretatik?

3.- Erantzuna baiezkoa zein ezezkoa izan, kontsideratu al da kazetariari epe bat emateko aukera, irratsaioak ematen jarrai dezan, emisora ematen dioten bitartean edota beste lokal batzuk aurkitu bitartean?

4.- Zertarako erabiliko da aipatu lokala?

5.- Erabakiak eragiten al die enpresa-, lan- eta adierazpen-askatasunei?

Iruñean, 1998ko ekainaren 16an

Foru Parlamentaria: Miguel Angel Larrayoz Lezaun

Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruzko galdera

«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTARI TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak Canal 4 Navarra toki telebistaren saioei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

“Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Hauxe jakin nahi dugu Canal-4 Navarra toki-telebistaren jarduera dela-eta:

1.- Zer legezko arauk babesten ditu Canal-4ko emanaldiak?

2.- Zer lurralde-muga ezarri zaie legez emanaldiei?

3.- Zer legezko arauk babesten du Nafarroako Gobernuak eta haren erakunde autonomoek publizitatea sartzea emanaldi horietan?

4.- Zenbat diru eta zeren arabera jaso du Canal-4 enpresak Nafarroako Administrazio Publikotik (udal administrazioak kenduta), 1997 eta 1998 urteetan?

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an

Bozeramailea: José Miguel Nuin Moreno

Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreformari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaiten:

Aurreikusi dutenaren arabera, gaur, ekainak 17, onetsiko omen du Europako Batzordeak mahasti eta ardoaren alorrerako erreforma. Aurreko dokumentuetatik ateratzen denez, proposamen horren funtsezko helburua da ardoen kalitatea hobetzea eta alorraren lehiakortasuna handitzea.

Erreforma hori Europako Batzordearen bigarren saioa da ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomuna (OCM) aldatzeko. Lehenengo proposamena 1994an egin zuten eta bertan behera geratu zen, aldeetako inor ez zuelako asebetetzen.

1994ko erreformak Europako Batasuneko gehiegizko ekoizpena eta horrek ekarritako gas-tua murriztea zuen helburu. Garai hartan, ardo-

soberakinek 30 edo 40 milioi hektolitro egiten zuten, eta aurreikuspenek gorako joera ezarri zuten. Batzordeak, beraz, mahastiak erauzteko politika zorrotza erabili zuen. Erreformatarako proposamena gelditzea izan zen ondorioa.

Ikuspegi erabat ezberdina dago gaur egun, urte batzuetako lehortek eta ekoizpenaren kantitateari baino kalitateari jaramon egiteak egoera aldatu egin baitute. Europako Batasuneko ardo ekoizpenak behera egin du hamar urtetan, 200 milioi hektolitro izatetik gaur eguneko 160 milioitara. Mahasti-azalerek ere 3.400 hektarea izatera pasatu dira, 4.000 milioi hektarea izatetik.

Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren (OCM) erreforma dela-eta, hurrengo galderei erantzutea nahi dut:

1.- Nola dago mahasti eta ardoaren alorra gaur egun, oro har?

2.- Europako Batzordeak gaur onets dezakeen erreformaren norabideek nola eragin diezaiokete mahasti eta ardoaren alorrari?

3.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak mahastizainen errentak hobetzeko, ardoaren OCMaren erreformaren ondorioz?

4.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak ardandegien errentagarritasuna eta gure ardoen lehiakortasuna hobetzeko?

5.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak eratorritako produktuak hobetzeko, kontsumitzaileei begira?

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako mahastiak berregituratzeko planei buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreikusi dutenaren arabera, gaur, ekainak 17, onetsiko omen du Europako Batzordeak mahasti eta ardoaren alorrerako erreforma. Aurreko dokumentuetatik ateratzen denez, proposamen horren funtsezko helburua da ardoen kalitatea hobetzea eta alorraren lehiakortasuna handitzea.

Hasieran 1.355 milioi ecu aurreikusi bazen ere, 443 erabiliko dituzte mahastiak berregituratzeko. Erreformatik, hala ere, ez du estatukako banaketa zehazten, banaketa kudeaketa-batzordeak eginen badu ere, estatu batasunkideen eskarien arabera.

Batasunkideek erabakitako eskualdeetan baino ez zaio eutsiko borondatezko erauzketari,

gaur egun indarra duten erregelamenduak aplikatzeari gertatzen den bezala.

Azkenik, proposamen berritzailea egin du Europako Batzordeak atal honetan, onesteko badago ere: legez kanpoko landaketa berri oro deuseztekoa, ekoizleei isuna jarri ordez, orain arte bezala.

Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren erreformak aurreikusi dituen mahastia birrantolatzeko planak direla-eta, hurrengo galderari erantzutea nahi dut:

1.- Nola dago gure Komunitateko mahastiaren ekoizpen-egitura, gaur egun? Zer jarduketa burutu diran azken urteotan lantze-sistemak eta barietateak hobetzeko?

2.- Nafarroako Gobernuak egin al du edo egiteko asmoa du Nafarroako mahastia birrantolatzeko planen bat, Europako Batasunari proposatuko zaion birrantolaketa-plan nazionalean sartzeko? Zenbat finantzaketa jasoko luke Nafarroako Komunitateko planak Europatik, gutxi gorabehera?

3.- Zer jarduketa aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak ardoaren OCMren erreformaren ondorioz, kalitate gutxiko barietateak eta mahasti zaharrak ordeztu eta lantze-sistemak aldatzeko, gure mahats-ardogintzaren modernizazio maila igotzearren?

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ardoaren OCMren erreformak aurreikusitako eskubideen sal-erosketari eta erreserbari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Aurreikusi dutenaren arabera, gaur, ekainak 17, onetsiko omen du Europako Batzordeak mahasti eta ardoaren alorrerako erreforma. Aurreko dokumentuetatik ateratzen denez, proposamen horren funtsezko helburua da ardoen kalitatea hobetzea eta alorraren lehiakortasuna handitzea.

Berregituratzeko neurrietako bat dugu edozein landaketa debekatzea 2010.era arte. Estatuak, hala ere, ezarri den ehuneko 1eko erreserba-azalerara jo dezakete. Erreserba horren hasierako helburua hau da: dagoeneko landatuta dauden legez kanpoko mahastiak erregularizatzen lagundu eta kalitatezko ardoak ekoizteko azalera berriak ematea.

Ikusten denez, erreformarako proposamenak ez du debekatzen batasunkide batek eskubideak erostea beste bati, ezta Gobernuak erreserban sartzeko eskubideak erostea ere. Erreserba hori osatzeko hartu nahi dituzte nekazariak bost urtean erabili ez dituzten lanketa-eskubideak eta Estatuak egingo dituen mahasti-erosketak.

Batasunkide bakoitzak zehaztuko du erreserba horren antolaketa.

Ardoaren Merkatuaren Antolamendu Amankomunaren erreformak aurreikusi duen erreserbako eskubideen salerosketa dela-eta, hurrengo galderari erantzutea nahi dut:

1.- Zer bilakaera izan dute landatzeko eskubideak gure Komunitatean azken urteotan? Zer jarduketa egin da azken urteotan Nafarroako ekoizpen eskubideak ez galtzeko?

2.- Nafarroako Gobernua egiten ari da edo egiteko asmoa du jarduketaren bat jarraipen eta kontrolerako tresna egokiak ezartzearen, eskubideak berrerabiltzea sustatu eta ez galtzeko?

3.- Nafarroako Gobernua egiten ari da edo egiteko asmoa du azterlan edo ikerlanen bat eskubideen poltsa eratzeko, aldi honetan erabiltzen ez direnak estatu mailako birbanatze-poltsan sartzeko aukerarekin?

4.- Nola eraginen dio gure Komunitateari aipatzen ari garen eskubideendako 5 urteko iraunaldia ezartzeak?

Iruñean, 1998ko ekainaren 17an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Foru Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Zerbitzuen alorreko okupazioak gorabeherak izan ditu gure Komunitatean laurogeita hamarrekoteetan, langileez hornitzeko agentzien ezartzearekin batera, aldi baterako laneko enpresa izenarekin ezagunagoak. Agentzia horiek agentziak berak kontratatu eta ordaintzen dituen langileez hornitzen dute eskatzailea, aldi baterako.

Biztanleria aktiboaren inkestek erakusten dute posible dela aipatu enpresek, egungo baldintzetan, lan-merkatuari buruzko estatistikak aldaraztea, zailago egiten dutelako enpleguaren alorkako benetako banaketa zehaztea.

Jakin ahal izan dugunaren arabera, Nafarroako Komunitateko Administrazioaren menpeko organo, erakunde autonomo eta enpresa publiko batzuek aldi baterako laneko enpresen (ABLE) zerbitzuak erabili omen dira.

Nafarroako Komunitateko administrazio publikoek aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzea dela-eta, hurrengo galderari erantzuna ematea nahi da:

1.- Nafarroako Komunitateko administrazio publikoek jo al dute aldi baterako laneko enpresen zerbitzuak erabiltzera, jarduera edo kontratazioen bat burutzeko?

2.- Aldi baterako lan enpresei egin zaizkien kontratazioen zerrenda eskatzen dut, departamentu, erakunde autonomo eta enpresa publiko-ka. Hurrengoak aipa bitez: kontratazioa zer enpresaren bitartez egin den, eskatu den lanaren edo langilearen helburuen eta zereginen zehaztapen laburra, zenbat langile hartu diren, eskatutako prestazioaren iraupena eta kostua.

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako aldi baterako laneko enpresei (ABLE) buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Zerbitzuen alorreko okupazioak gorabeherak izan ditu gure Komunitatean, laurogeita hamarren artean, langileez hornitzeko agentzien ezartzearekin batera, aldi baterako laneko enpresa izenarekin ezagunagoak. Agentzia horiek agentziak berak kontratatu eta ordaintzen dituen langileez hornitzen dute eskatzailea, aldi baterako.

Aldi baterako laneko enpresen jardueraren erregulazioa lan arlokoa bada ere, beraz, Estatua-ren eskumen osoa, autonomia erkidegoetako organoei dagokie lan-legedia betetzea.

Jakin ahal izan dugunaren arabera, Nafarroako Komunitateko Administrazioaren menpeko organo, erakunde autonomo eta enpresa publiko batzuek aldi baterako laneko enpresen (ABLE) zerbitzuak erabili omen dituzte.

Nafarroan diren aldi baterako laneko enpresak (ABLE) direla-eta, hurrengo informazioa eskatzen dut:

1.- Gure Komunitatean jarduteko baimena duten aldi baterako laneko enpresen zerrenda, eta jarduera noiz hasi zuten.

2.- Nafarroan bakarrik jarduteko baimena duten aldi baterako laneko enpresen zerrenda.

3.- Aipatu enpresen bitartez kontratatu den langile-bolumenaren zerrenda, eta egin diren kontratuen kopurua.

4.- Aldi baterako laneko enpresen jarduerak gure Komunitateko enplegu-estatistikean zer eragin duen.

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

Erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurri buruzko galdera

JOSE M^a EZPELETA MARTINEZ FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José M^a Ezpeleta Martínez Foru Parlamentari jaunak erradiologiako teknikari espezialistak direla-eta hartu behar diren neurri buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José M^a Ezpeleta Martínez, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikuluekin eta ondokoekin bat, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten:

Apirilaren 11ko 7/1996 zirkularra eman zuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari-kudeatzaileak, beste zirkular bat argitzearren, hain zuzen ere, martxoaren 11ko 5/1996 zenbakikoa, Erradiodiagnostiko, Medikuntza Nuklear eta Erradioterapia Zerbitzu eta Unitateetan eginkizun teknikoetan aritzeko langileen kontratazio edo atxikipen berriei buruzkoa.

Hauxe zioen aipatu dugun lehen zirkularrak:

"Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren menpeko osasun-etxeetarako langileen edozein kontratazio edo atxikipen berrik, baldin eta Erradiodiagnostiko, Medikuntza Nuklear eta Erradioterapia Zerbitzu eta Unitateetan eginkizun teknikoak betetzeko bada, Osasun eta Kontsumo Ministroaren 1984ko ekainaren 14ko Aginduaren 4. artikulua arabera, nahitaez hartu beharko ditu edo xede izan beharko ditu jardute-alor bakoitzari ezar dakizkikiokkeen berriazko teknikei buruzko prestakuntza ezagupen bereziak bereganatu dituzten langileak."

"Zalantzak izan dira 5/1996 zirkularrak aipatzen dituen prestakuntza ezagupen bereziak bereganatu dituzten langileak zeintzuk ote diren. Horrek argibidea edo azalpena ematea eskatzen

du orain, Estatuko Osasun Sistemaren Lurraldearteko Kontseiluak 1995eko apirilaren 3an eginiko osoko bilkuran hartutako irizpideekin eta Zuzendaritza Nagusiarenekoekin eta Osasun eta Kontsumo Ministerioko Lanbide Antolamendurako Zuzendaritza Nagusiak 1995eko uztailaren 31n ezarri zuen irizpidearekin bat. Horra azalpena:

Honela egiaztatuko dira erradiazio ionizatzaileak erabiltzen parte hartze zuzena duten langileek erradiodiagnostiko, erradioterapia eta medikuntza nuklear arloetako teknikei buruz behar dituzten berriazko ezagupenak: aipatu lanpostuetara iritsi diren lanbidedunen prestakuntza-curriculumaren bitartez (arlotako bakoitzeko teknikari espezialisten kasua da hori, edota erradiologia eta elektroerradiologia espezialitateko OLT/EDUena); edo 1984ko ekainaren 14ko Ministro Aginduaren lehen xedapen iragankorrek aurreikusitako egoeran izateagatik."

Berrikitan berretsi du Auzitegi Gorenak Nafarroako Auzitegi Nagusiak 1997ko urtarrilaren 13an eman zuen epaia.

Horiek horrela, hurrengo galderari erantzuna ematea nahi da:

1.- Zer neurri hartuko du Nafarroako Osasun Zerbitzuak erradiologiako teknikari espezialistek (ETE) bere eginkizun guztiak bete dituzten, bere dituzten lanpostu guztietan?

2.- Zer aurreikuspen eta ekintza garatuko du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Europako Batasuneko erradiologi babesari buruzko Euratom 84/466 Zuzentarauak hitzez hitz betetzeko?

3.- Zer jarduketa aurreikusitako du Nafarroako Osasun Zerbitzuak aipatu epaiak betetzeko?

4.- Nafarroako Osasun Zerbitzuak aldatu egin al ditu aipatu zirkularretan ezarritako irizpideak? Hala bada, zergatik? zer diote, hitzez hitz?

5.- Jarduteko zer aurreikuspen du Nafarroako Gobernuak, arauak, epaiak eta zirkularrak beteazterako, ETEek dituzten bidezko eskubideen ez betetzea konpontzeko?

Iruñean, 1998ko ekainaren 18an

Foru Parlamentaria: José M^a Ezpeleta Martínez

FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1388/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsi da frekuentzia gehiago izatea, emisoreen zeharreko kudeaketarako, Frekuentzia Modulatu Uhin Metrikozko Irrati Plan Tekniko Nazionalaren barruan. Frekuentzia gehiago izate horren ondorioz, Foru Komunitateak emakida ditzan, hurrengo herrietako emisoreak izendatu ziren: Iruña (2), Lizarra, Izaba, Larraun-Baraibar, Lesaka, Zangoza eta Tuterá.

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu berria onetsi zuen aurrekoaren ordeztu, emisore berri horientzako baimena ematea arautzeko. 336/1997 Foru Dekretu horrek, emisore baten kudeaketarako emakida baten eskatzaileek bete behar zituz-

ten baldintzak aipatzeaz gain, hilabeteko epea ezarri zuen zegozkion eskabideak aurkezteko. Aipatu deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin hasi zen epea. Hauxe ere xedatu zuen aipatu Dekretuak: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak eskatzen diren betebeharrak betetzen dituzten eskatzaileen onarpena onetsiko duela, eta, Nafarroako Gobernuak aldeztu aurretik ezagututa, erabakiko dituela, arrazoituz eta hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita, behin betiko emakiden aldeztu aurretiko behin-behineko adjudikazioak.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko egin duen proposamena dela-eta, ondoko galderari erantzuna ematea eskatzen dut:

1.- Noiztik dauka prest Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak aipatu emisoreen adjudikazioen gaineko erabaki-proposamena?

2.- Noiz bidali zaio aipatu proposamena Nafarroako Gobernuari?

3.- Zer gobernu-bilkuratan aurreikusi da FMko emisoreen behin-behineko adjudikazioei buruzko proposamenaren berri ematea?

4.- Herrilan Kontseilariak, edo hala izatekotan, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Parlamentu honetara agertzea adjudikazioen arrazoien berri emateko, aldeztu aurretik?

Iruñean, 1998ko ekainaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruzko galdera

JOSE JAVIER SANCHEZ TURRILLAS FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupenari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1388/1997 Errege Dekretuaren bidez onetsi da frekuentzia gehiago izatea, emisoreen zeharreko kudeaketarako, Frekuentzia Modulatu Uhin Metrikozko Irrati Plan Tekniko Nazionalaren barruan. Frekuentzia gehiago izate horren ondorioz, Foru Komunitateak emakida ditzan, hurrengo herrietako emisoreak izendatu ziren: Iruña (2), Lizarra, Izaba, Larraun-Baraibar, Lesaka, Zangoza eta Tuteran.

Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu berria onetsi zuen aurrekoaren ordean, emisore berri horientzako baimena ematea arautzeko. 336/1997 Foru Dekretu horrek, emisore baten kudeaketarako emakida baten eskatzaileek bete behar zituzten baldintzak aipatzeaz gain, hilabeteko epea

ezarri zuen zegozkion eskabideak aurkezteko. Aipatu deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzearekin hasi zen epea. Hauxe ere xedatu zuen aipatu Dekretuak: Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak eskatzen diren betebeharrak betetzen dituzten eskatzaileen onarpena onetsiko duela, eta, Nafarroako Gobernuak alde aurretik ezagututa, erabakiko dituela, arrazoituz eta hiru hilabeteko epean, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita, behin betiko emakiden alde aurretiko behin-behineko adjudikazioak.

FMko emisoreak behin-behinekoz adjudikatzeko proposamenaz Nafarroako Gobernuak duen ezagupena dela-eta, ondoko galderari erantzuna ematea eskatzen dut:

1.- Nafarroako Gobernuak izan al du Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak aipatu emisoreen adjudikazioez eman duen erabaki-proposamenaren berri?

2.- Noiz izan du Nafarroako Gobernuak aipatu proposamenaren berri?

3.- Zer gobernu-bilkuratan aurreikusi da Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak FMko emisoreen behin-behineko adjudikazioei buruz egin duen proposamena aztertzea?

4.- Nafarroako Gobernuak, edo hala izatekotan, Herrilan Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, aurreikusi al du Parlamentu honetara agertzea adjudikazioen arrazoen berri emateko, alde aurretik?

Iruñean, 1998ko ekainaren 19an

Foru Parlamentaria: José Javier Sánchez Turrillas

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko dokumentalista lanpostu bat betetzeko asmoz Mahaiak 1997ko uztailaren 2ko erabakiaren bitartez deitutako oposizio-lehiaketa amaiturik (1997ko irailaren 5eko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala eta 1997ko irailaren 12ko Nafarroako Aldizkari Ofiziala); Epaimahiak bidalitako izendapen-proposamenaren berri izan ondoren (1998ko ekainaren 3ko 39 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua); deialdiaren 7.2 oinarriak aurreikusiararen arabera, interesatuak aurkeztutako dokumentazioa jaso eta gero; eta deialdi beraren 8. oinarriak Mahaiari ematen dizkion izendapen-ahalmenak ikusita, HONA ERABAKIA:

Lehena. Bere izen-deiturak eta jaiotze-data ondoren jarriko diren izangaia izendatzea Nafarroako Parlamentuko funtzionario, dokumentalista gisa, teknikarien kidegoaren eta teknikari diplomatuaren eskalaren barruan:

Iturri Villanueva, Araceli, 1961eko otsailaren 12a

Bigarrena. Interesatuak hilabete izango du karguaz jabetzeko, izendapena jakinarazten zaionetik.

Hirugarrena. Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

Laugarrena. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako nekazari eta abeltzaintzako Eskualdeko Ardura Plana

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Gobernuak, 1998ko ekainaren 15ean hartutako erabakiaren bidez, hauxe bidali dio Nafarroako Parlamentuari, bere iritzia eman dezan: Nafarroako nekazari eta abeltzaintzako Eskualdeko Ardura Plana.

Horiek horrela, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren eta Erregelamenduko 197. artikularekin bat,

ERABAKI DA:

Lehena. Nafarroako nekazari eta abeltzaintzako Eskualdeko Ardura Plana tramitera onartzea.

Bigarrena. Hari buruzko iritzia Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak emango duela xedatzea.

Hirugarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

(Oharra: Planaren testua Foru Parlamentari jaun-andreen esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorteko bulegoan).

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren arloko itunen sistema aztertzeke Batzorde Bereziaren osaketa, antolamendua eta jarduerari buruzko arauak

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Bozeramaileen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go.- Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren arloko itunen sistema aztertzeke Batzorde Berezia sortzea.

2gn. Ondoren aipatzen diren arauak onestea, aipatu Batzordearen osaketa, antolaketa eta jarduerari buruz:

Lehena.- Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasunaren arloko itunen sistema aztertzeke Batzorde Berezia sortu da.

Bigarrena.- Batzordearen xedea hauxe izan da: gizarte zerbitzuen, hezkuntzaren eta osasuna-

ren arloen egungo egoera aztertu eta erreformarako proposamenak egitea, arlo horietako ituntzaren ikuspuntutik.

Hirugarrena.- Parlamentuko Talde bakoitzeko bi ordezkari osatuko du Batzordea, zeinak boto ponderatuaren sistemaren bidez hartuko dituen erabakiak, Batzordeburua hautatzea barne. Talde bakoitzak zenbat Foru Parlamentari, hainbat boto izanen ditu haren Bozeramaileak Batzordean. Taldeko zenbat kidek ordezkotza eman, hainbat boto izanen ditu Askotariko Taldeko Bozeramaileak, ordezkotza idatziz egiaztatu behar dela.

Laugarrena.- Batzordea irailaren 8an eratuko da, 13:00etan.

Bosgarrena.- Batzordeburua hautatuko dute eratzeko bilkuran. Batzordeburua bertaratzen ez denean, bere Taldeko beste batzordekideak

ordezkatuko du. Batzorderatzen den legelaria ari-tuko da Batzordeko idazkari lanetan.

Seigarrena.- Datorren irailaren 3ko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharko diote Parlamentuko Taldeek bere kideen izendapena Biltzarreko Lehendakariari.

Zazpigarrena.- Batzorde Bereziak behar dituen laguntza eta lankidetzeta eska diezazkioke Nafarroako Gobernuari. Hala bada, hauxe ere eska diezaioke erakunde horretako Lehendakariari: beharrezko langileak izendatzea edo dagozkion txostenak ematea.

Zortzigarrena.- Batzorde Berezi honen antolaketeta eta jarduerari dagokienean, arau hauetan aurreikusi ez den guztia arautuko da Ganbararen Erregelamenduak batzorde berezeiei buruz ezarritakoarekin bat, eta hala behar izanez gero, ohiko batzordeei buruz ezarritakoarekin bat.

3gn. Erabaki hau Parlamentuko Taldeetako Bozeramaileei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko ekainaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

<p>HARPIDETZAREN PREZIOA</p> <p>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</p> <p>Urte bat 5.900 pta.</p> <p>Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » .</p> <p>Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .</p>	<p>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</p> <p>NAFARROAKO PARLAMENTUA</p> <p>«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»</p> <p>Arrieta 12, 3</p> <p>31002 IRUÑA</p>
--	---